


la G

erronkak eta kuantifikaziorako bidea ISO 9000 arauan

eskola

Forua



NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN BERRIAK ETA JARDUERAK

Aurkezpenean aurreratu genuen beza-la, atal honetan gure egiteko nagusiak zein diren azaldu nahi dugu.

Nafarroako Eskola Kontseilua joan den 1998ko maiatzaren 28an eratu zen, hasiera batean Familien eta ikasleen ordezkariak gabe, legeak adierazten baitu sektore horien ordezkaritza federazioei eta afiliazioa dela eta eratuak legeko elkartei dagokiela, halakorik bada. Legezkotasuna eta, batez ere, afiliazioa frogatzea lan gaitza da, eta horretarako 1999ko otsailaren 28an bukatzen den epe bat dago ezarria. Behin-behineko, Gobernuak familiak Hezkuntza Junta Nagusiak zuen ordezkaritza lizatu zuen. Ikasleak sarritara bultzatzea ezinezkoa izan da oraingoz, eta espero dugu apirillean arazoa konponduta egotea.

Aldi honetan "Antolamendu eta Funtzionamendu Arautegia" faxutu dugu, zazpi talde desberdinetako hogeita hamalika kide dituen organismo batentzako tresna funtsezkoa. Gainera, talde bakoitzaren barruan jarrera eta interes aski desberdinak daude.

1998ko uztailaren 1ean eman genuen gure lehen txostena ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituen Foru Dekretuari buruz.

Irailean Urteko I. Lan plana onetsi genuen, honela laburtzen dena:

Helburuak:

- 1-Kontseiluaren funtzionamendu eta antolamendua sendotu.
- 2-Nafarroako Eskola Kontseilua Nafarroako hezkuntza-bizitzan sartu dibulgazio jarduerak bideratuz.
- 3-Legean ezarritako beharbizunak bete, arauzko diktamenak eta hezkuntzarako garrantzizko txostenak emanez.
- 4-Hezkuntza-arlo interesgarrietan norberaren ekimenak bultzatu.
- 5-Estatuko Eskola Kontseiluarekin eta Autonomietako beste Eskola Kontseilu batzuekin koordinatu eta elkarlanean aritu.

Une honetan badira zenbait gai garrantzitsuri buruz beren txostenak Osoko Bilkurari bidaltzeko prest dituzten talde edo ponentziak. Honako hauek, besteak beste:

"Giza-zientzien irakaskuntza bigarren Hezkuntzan": Diktamenari buruzko txostena.

"Batxilergo berriko aparteko azterketari buruzko Txostena".

"Nafarroako Ikastetxe publikoetako hezkuntza-orientazioari buruzko txostena".

Gaur arte Eskola-kontseiluaren Osoko Bilkura sei aldiz egin dugu eta Batzorde Iraunkorra hamahiru aldiz bildu da. Gorago aipatutako talde edo ponentzien bilerak ez daude kontaturik hor.

S. XXI



Hurrengo aste eta hilabeteetan, Nafarroako Eskola Kontseiluak honako egintza hauek burutuko ditu:

"Estatuko Eskola Kontseilu Autonomikoen eta Estatukoaren X. Jardunaldi nazionala" parte hartu eta bertan bi idazki aurkeztu honako gai hauei buruz:

"Autonomia eta parte-hartzea ikastetxeetan eta "Ikastetxeen antolamendu autonomia"

Aldizkari hau Kontseiluaren beraren ponentzia edo argitalpen kontseilu baten bitartez martxan jarri Corellako Arte Eskolaren laguntzarekin, Ikastetxeen artean aldizkariaren diseinu eta maketaziorako egindako lehiaketan irabazle atera bait zen.

1999ko apirilaren 24an, larunbata, Irúneko Planetarioan "Nafarroako Eskola Kontseilua Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin biltzeko I. Jardunaldia" egingo dugu.

10 h. Harrera.

10 h. 10' Hasiera-ekitaldi ofiziala: Hezkuntza zuzendari nagusia.

10 h. 20' TERESA MAURI MAJOS irakas

learen ponentzia. Gaiak: "Aniztasuna hobeki lantzeko proposamenak".

11 h. Solasaldia.

11 h. 30' Atsedena. Kafea.

12 h. Aniztasuna hobeki lantzeko proposamenak eta Nafarroako ikastetxe batzuetan izandako esperientziak.

- Irúneko "Navarro Villoslada" B.H.I.

- Irúneko "Santa Tomás/Dominicas" eskola.

- Tuterako "Benjamín de Tudela" B.H.I.

13 h. 30' Solasaldia.

14 h. 15' Jardunaldiaren bukaera.

Beste gai bat ere aztertuko dugu 1999ko ekaina baino lehenago: Helduen irakaskuntza, gauekoa eta urrenekoa: arauen azterketa eta 1999/2000 urteko Eskola Egutegia.

Eta, gainera, 1999ko azken hiruhilekoan gure "Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko urteko txostena" eta "Nafarroako Eskola Kontseiluaren Txostena" prestatu eta argitaratu eman behar ditugu.

Pertsonaiak



Eskuintik ezkerrera: Amaia Eguizabal, Mónica Domínguez eta Merche Santos

Aldizkari berri-emaile honen diseinu eta maketazioaren egilea Merche Santos López da, **Corellako Arte Eskolako ikaslea**, Nafarroako maila Ez Unibertsitarioetako lehen saria irabazi zuena. Bigarren eta hirugarren sariak haren lagun Mónica Domínguez eta Amaia Eguizabalentzat izan ziren. Guztira hogei lan aurkeztu ziren.

Hona hemen Ikasle hauei buruzko informazio laburra:

Merche Santos López, Calahorran jaioa, 20 urtekoa. BBB Zientzia Hutsak ikasi zituen hirugarren mailaraino eta gero Batxillergo Artistikoa eta Selektibitatea egin zituen. Publizitate Grafika hautatu zuen flyer-ak gogoko zituelako eta etorkizunean bereak egin nahi zituelako, lehenetik ere batzuk eginak izan arren. Zenbait jenderentzat eta moda abangoardistako dendetarako arropa diseinatu eta egin du. Denda horientzat txartelak, poltsak, grafitiak etab. egin ditu.


Mónica Domínguez Medrano, Tuteran jaioa, 23 urtekoa. Barnealdean Diseinua, Batxiller artistikoko 2. maila eta selektibitatea ikasi zuen. Orain **Publizitate Grafika**

ikasketetako 2. urtea egiten ari da. Lan egin du, albaitaritzako klinika bateko pape-rak, bisita-txartelak eta dekorazio denda baten irudia diseinatu ditu.

Amaia Eguizabal Lasheras, Faltzesen jaioa, 20 urtekoa. BBBko ikasketak egin (zientzia hutsen adarrean), UBI eta Selektibitatea eginak ditu Martzillako Marqués de Villena B.H.ko Institutuan.

Txikitandik Nafarroako herrietako festetako kartelen lehiaketetara aurkeztu izan da, eta lau aldiz irabazi du Faltzesen eta behin Cintruénigon, beste sari batzuen artean. Publizitateko Grafika ikasketak egin ditu, irteera hori zuelako gustokaen eta gogobetegarriena, eta oso pozik dago sariarekin, batez ere hirurak Corellako Arte Eskolakoak direlako.

Irizkiak




Eskola Kontseiluak gure lege ordenamenduan LODEtik aurrera Konstituzioak hezkuntzako parte-hartze sozialaren araua betetzeko aurreikusitako tresnak dira. Horregatik gure hezkuntza-sistema hezkuntzaren demokratizazioa hautatu duten herrien artean sartuta geratzen da. Demokratizazioa esatean ez da ulertzen bakarrik denek hezkuntzarako duten eskubidea, baizik eta hezkuntzarako eskubide berdintasuna. 1948ko Giza Eskubideen Deklarazioak dioena betetzea bermatzen duena, hezkuntza-erabakietan parte-hartze zuzena, 68ko maiatzetik aurrera bereziki agerian geratu zen nahia.

1828tik Nafarroak bere irakaskuntzaren antolamendua gidatu duten organismo kolegiatuak izan ditu. Lehenik Hezkuntza-Batzorde Nagusia izan zen (1828-1836), autonomia politikoko testuinguruan lehen hezkuntza zuzendu zuena. Ondoren beste batzuk etorri ziren, Estatuko administrazioaren menpekoak, legeriak probintziei ematen zizkien erabaki aholmenak gauzatu zituztenak. Lehen Hezkuntzako Batzorde Nagusia (1838-1858), Hezkuntza Publikoko Batzorde Probintziala (1858-1931), Lehen Hezkuntzako Kontseilu

Probintziala (1931-1936) eta 1939tik aurrera, Hezkuntza Batzorde Nagusi birrezarria, zeinak berragoita hamar urtetik gora egin baitzituen Nafarroak bere sistema berezia zela medio mantentzen zituen eskumenak gauzatzen, beste probintzietan Hezkuntzako Batzorde Probintzialek zituztenak bere gain hartzen eta Nafarroako erakundeek bultzatu nahi izan zituenak bideratzen.

1982tik gure Komunitateak bere irakaskuntza arautu eta antolatzeko eskumen osoa onartu eta Hezkuntza Departamentuak hezkuntzaren kudeaketa 1990ean bere gain hartu zuenetik, Nafarroako Eskola Kontseilua irakaskuntzako partehartzea bermatzeko errealitate bat da, azkenean, eta kontsulta eta aholkularitza organo bat. Nafarroako Parlamentua Antzinako Korteen oinardeko demokratikoa eta Nafarroako Gobernua Foru Diputazioarena den bezala, Eskola Kontseilua gorago aipatutako hezkuntza-organismoen jarraitzaile da eta bere legitimazioa gaurko ordenamendu demokratikotik hartzen du. On litzateke gaurko errealitatearekiko eta bere eskumenekiko egokiagoa den izen berria erabiltzen ohitzea.

Gaurkotatzen



IKASTETXEETAKO KONTSEILUEN BERRIAK ETA IRADOKIZUNAK.

Maisu bakoitzak bere ikasliburua duela eta Ikastetxe bakoitza mundu desberdin bat dela. Horregatik, Ikastetxeko Eskola Kontseilu bakoitzak bere esperientziak ditu, beste batzuenetatik desberdinak. Hasteko, pertsonak desberdinak dira.


Askotan, egiten duguna, batez ere dena ongi ateratzen bada, han eta hemen ezaguna izatea nahi genuke. Arrazoi handiagorekin, gure hezkuntza-lan honetan, esperimentatutakoa oso onuragarria bada eta besteri lagungarri edo bultzagarri izaten ahal bazaio, bitartekoak jarri behar ditugu transmititzeko eta esperientzia aprobetxatu ahal izan dezaten. Egitea ez da aski. Besteei egiten erakutsi behar zaie. Hortik informazioaren garrantzia.

Eta zer da informaziorako gait? Bati egokia iruditzen zaiola. Adibidez: ikastetxean sortutako problemaren bat nola konpondu den; nahiz hemengo nahiz atzerriko beste ikastetxe batzuekin burutzen diren Programetako partehartzea; kalitate-sareei buruzko esperientziak; ikastetxean egindako jardunaldiak, urteurrenak, lehia-

ketak; lortutako sariak; pasadizoak...

"Ikastetxeetako Eskola Kontseiluen Berririk izeneko atal honek Nafarroan diren Ikastetxeetako Eskola Kontseilu desberdinek bidalitako berri eta esperientziak jasotzeko bitartekoa izan nahi luke. Eskola Kontseilu guztiak gonbidatzen ditugu beren berriak bidaltzera honako helbide honetara: IDEA/Nafarroako Eskola Kontseiluaren Aldizkari berri-emailea (Tomás Caballero Parkea, 2 - "Fuerte del Príncipe" I, 4. solairua, 7. bulegoa. 31006 Iruña).

Gaurkotatzen



IKASTETXEETAKO ESKOLA-KONTSEILUEN AZKEN HAUTESKUNDE PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak hezkuntza-sektore desberdinen partehartzeari buruzko datu adierazgarri eta esanguratsuak eman dizkigu.

Hauteskunde prozesuan diren ikastetxeak guztira: 277 % 81.

Sektoreetako partehartzea

Irakasleak: % 86

Ikasleak: % 65

Familiak: % 15

A.Z.L. % 87

Sektore publikoaren eta hitzartuaren arteko diferentzia ez da esanguratsua, oso antzekoa baita:

	Publikoa HH/LH	Hitzartua HH/LH
Irakasleak:	91%	89%
Ikasleak:	86%	93%
Familiak:	28%	16%
A.Z.L.	91%	90%
	Publikoa DBH/Batz	Hitzartua DBH/Batz
Irakasleak:	86%	74%

Ikasleak:	67%	75%
Familiak:	6%	8%
A.Z.L.	86%	84%

Harrigarria da familien partehartze eskasa oro har, eta bereziki Bigarren Hezkuntzako eta Batxillergokoena, gainera eskola-adin zaileneko eta garrantzi handienekoen gurasoak izanik. Seguruenik ez da erreza erabateko azalpena aurkitzea, baina Nafarroako Eskola Kontseilu honetarako, gutxienez, kontuan hartzeko erronka bat da, batez ere gure eginkizuna partehartzea bultzatu eta bide ematea dela onartzen badugu.

De

Argitaletxea

Nafarroako Eskola Kontseiluan Astearen 1999. argitaletxearen berri ematen dugu. Argitaletxearen helburua da, lehenik eta batez ere, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri ematea.

Nafarroako hezkuntza sistemaren berri emateko, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri emateko, argitaletxearen helburua da, lehenik eta batez ere, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri ematea.

Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri emateko, argitaletxearen helburua da, lehenik eta batez ere, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri ematea.

Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri emateko, argitaletxearen helburua da, lehenik eta batez ere, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri ematea.

Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri emateko, argitaletxearen helburua da, lehenik eta batez ere, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri ematea.

Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri emateko, argitaletxearen helburua da, lehenik eta batez ere, Nafarroako Eskola Kontseiluan gertatzen ari denaren berri ematea.

Gela Gaur

Aspaldi honetan honelako gaiez kezkatua dabil Nafarroako hezkuntza komunitatea:

Orik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa arautzea.

Nafarroako ikastetxeetako eskola orientazioaren eredua, bai ikastetxe publikoetan bai pribatu itunduetan.

1999/2000 ikasturtean unibertsitatara sartzeko eginen diren proba berriak.

Nafarroako Eskola Kontseiluan ikasleek duten presentzia eta ordezkaritza.

Familiek ikastetxeetako Eskola Kontseiluen formakuntzan azken urteotan duten partehartze urria.

Irakasleen lanaren errekonozimendu soziala.

Gutxiengo etnikoen eskolaratzea, segimendua eta horientzako laguntza.

Aniztasunaren gaia Bigarren Hezkuntzan.

Hezkuntzaren kalitateaz gaur egun dauden proposamenek planteatzen dituzten erronkak eta kuantifikaziorako bidea ISO 9000 arauan.

